

EUSKAL PRESOAK. Senideak Joux la Ville eta Clairvauxen ziren atzo

Parisko manifestaziora joateko deia egin du ABk

Gatazkari «erantzun egokiak» emateko galdeginen diote Gobernuari

Hur Gorostiaga | BAIONA

Abertzaleen Batasunak bat egin du heldu den ekainaren 9an Parisen euskal presoek eskubideen alde eginen den manifestazioarekin. «Frantziako Gobernuari bere erantzukizunak gogorarazteko parada» izanen dela jakinarazi du ABk, bretoi, korsikarren eta euskal presoek aldeko mugimenduak sustengatuz. «Giza eskubideen eta demokraziaren alde agertzen den estatu baten exekutio gisa behartua da nazioarteko legeria eta bere legeri propioa errespetatzea. Presoak beren familiarik hurbiltzea, juridikoki, politikoki eta giza lege, eskubide bat da» oroitarazi du ABk, eta eskubide horien errespetua lortzeko zenbat manifestazio behar diren galdegin du.

Gisa berean, «izaera politikodun gatazkaren protagonista ezinbestekoa izanik, gatazka horri erantzun egokirik sekula eman ez» diola oroitarazteko deitu du manifestaziora alderdi abertzaleak. «Jospinen gobernuak dio bortizkeria negoziatziorako oztoporik handiena dela, baina une berean euskal gizartearen gehiengoak bakean eta bide demokratikoetatik aldarrikatzen dituen Euskal Departamendua eta euskararen



EGUNKARIA
Euskal presoek senideak, atzo, Joux La Villeren aurrealdean.

ofizialtasunaren aitzinean entzungor egoten da» azaldu du ABk.

Egunotan Parisko Asanblea Nazionalen Korsikarendako neurri berriak eztabaidatu direnean, «egungo krispazio eta bortizkeri egoera gaindituko duen Ipar Euskal Herriko antzeko prozesu bat noiz ezarriko duen martxan» galdegin diote gobernuburuari. Hitza eta erabakia «herriak izan behar» dela azpimarratu du Abertzaleen Batasunak.

Frantziako Bira Clairvauxen

Frantziako Bira egiten ari diren euskal preso politikoen senideak Clairvaux eta Joux La Villeko zuzendariekin izan ziren atzo Euskal Herriko 1.000 kilometrorera eta ohiko garraiobide lineatik urrun kokatzen diren presoegietara heltzeko arazoak, bidaia gastuak eta arriskuak ai-

patu zituzten. Gisa berean, Joux la Villeko presondegiaren Idoia Martinez preso bakarra dela salatu zuten, nahiz eta euskal presoek kolektiboak behin eta berriz galdegin presoak ez daitezkeen geografikoki isolatu. Arratsean Troyesera itzuli ziren, bertan hitzaldi publiko bat baitzuten iragarrita.

PSN. Sozialisten oposizio lana «ona» dela dio

Lizarbe: «Oposizioarekin tematuta dago Gobernuak»

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusiaren arabera bere alderdiak legegintzaldiaren aurreneko bi urteetan egin duen lana «ona» izan da. Dena dela, Foru Erkidegoaren egoera «hobe» litza-tekeela uste du Lizarbek, eta errua UPNren Gobernuari egotzi dio. «Nafarroa hobekiago legoke, baina Gobernuak ez du jakin ongi lan egiten», gaineratu du.

Lizarbek Nafarroako sozialisten azken bi urteotako Parlamentuko lana jaso duen *Capacidad de ser alternativa. Dos años de oposición responsable a un Gobierno de minoría* liburua aurkeztu zuen atzo. PSNren aburuz, Nafarroako Gobernuaren lana «oso justua izan da», eta hiru arazo izan ditu: «Eraginkortasuna eta politika egiteko gabezia nabaria, eta oposizioaren etorkizunean tematu egon izana».

Aurreneko gabeziari dagokionez, Lizarbek uste du Foru Erkidegoaren garapena ongi doala. «Baina hobekia-

go legoke bere tokian egoten dakien gobernuarekin», erantsi zuen PSNko buruak.

Politika egiteko gabezia Gobernuak adierazten duen «oposizioarekin elkarriketatuko eta atzera egiteko borondate eskasean» datza, Lizarberen arabera. Gutxiengoan agintzen duen Gobernuak dela aintzat hartuz, PSNk uste du UPN oposizioarekin «tematua» dagoela. «Eta bereziki, PSNrekin», azpimarratu zuen Lizarbek. «Gobernuak kezkatuta dago 2003. urtean eginen diren hauteskunde- en emaitzekin. Orduan oposizioak nagusiagoa lortzen duen ala ez larritzen du», azaldu zuen Lizarbek.

PSNko agintariaren iritziz, UPNren «egoneza» Nafarroako sozialistekiko adierazten dituen «gutxiespen hitzetan» nabaritzen da. «Gobernuak ez daki nola gutxietsi guk bi urteotan egin dugun lan ona. Horregatik deitzen digu 'ezetza koordinakundea' eta beste zentzugabekeria batzuk», salatu zuen Lizarbek.

LABURREAN

Elkarriketa eta bakea eskatzen duen pankarta jartzea erabaki du Amurrioko Udalak

Udaletxeko balkoian *Elkarriketa, bakea eta Euskal Herriaren erabakiari errespetua* leloa duen pankarta jartzea erabaki zuten azken udal batzarrean EAk eta EHk Amurrión. PPk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten eta EAJ ez zen batzarrean izan. PPko bozerra maile Juan Carlos Ruizek salatu zuenez, Pablo Isasi alkateak (EA) «babesik gabe utzi gaitu» pankartaren leloa «ez delako eskatzen ETA desagertzeko».

EH: «Hernaniko Udaleko egutegiari Jaurlaritzak jarritako helegitea lotsagarria da»

EHk «lotsagarritzat» jo du Hernaniko Udalak jai egunen inguruan hartutako erabakiari Eusko Jaurlaritzak jarritako helegitea. EHren ustez, horrek «agerian uzten du egoera politikoko honetan Jaurlaritzak Madrili eskaini nahi dion morrontza politikoa». EAJ eta EAren «ardura larria» dela dio EHk, «demokratikoki onartutako erabakiari helegitea aurkeztu duenak iruzur egiten baitio herri honen borondateari».

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAHUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

BARNETIK EZAGUTU GAITZAZU

Jardunaldi Irekiak

ESKAINITAKO TITULUAK

HUMANITATEAK-ENPRESA LIZENTZIATURA

IRAKASLETZAN DIPLOMATURA

Bereztasunak: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa

PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIATURA

Egitaraua

- 1.- Unibertsitate mailako tituluen eskaintza.
- 2.- Mondragon Unibertsitatea etorkizunari begira
- 3.- Fakultatea ezagutu.

Maiatzak 24, Osteguna **18.30 etan**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
(Mondragón Unibertsitatea)
Dorleta auzoa, z/g• 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)Erreserba ezazu eguna: 943 71 41 57 telefono zenbakian
e-posta: idazkaritza_akademikoa@huhezi.edu web: www.huhezi.muni.es